

Salbuespen egoera

Jon Mirena Landa
Zigor Zuzenbideko
katedraduna

Parisen gertatutako atentatuaz geroztik ofizialki segurtasun-alarman bizi gara. Psikosia, atentatu bat sufritzearena, areagotu egin da, Frantzia ez ezik, Europa osoan ere. Ez dakit aler-ta-giro horrek ere Euskal Herriko gure gizartean indar berberaz eragiten duen baina inguruko lurraldeetatik halako aler-ta-mezuak etengabeak dira, komunikabide tradizional zein gizarte-sareetatik behin eta berriro etorririkoak.

Jihadismoak, ordea, zaugarritasuna handitu besterik ez du egin, jada abian zen prozesu estruktural baten barruan: alegia, segurtasunik eza erdigunean kokatzen duen gizarte post-modernoari dagokiona. Aspalditik Ulrich Beck soziologo alemanak inork baino hobeto jakin zuen deskribatzen, eta izena ematen, halako dinamika psiko-sozial kolektiboari: Risikogesellschaft (arriku-gizarte), non eta arrikuak inguratutako eta hortaz jabeturik-obsesionaturik-bizi baikara.

Arriku-iturriak antizak dira: natur-fenomenoak (urririkarak, sumendiak, uholdeak, gaixotasun kutsagarriak...) zein gizabanakoak nola edo hala sortutakoak (klima-aldaketa, pobrezia, guda, delitugintza arrunta, terrorismoa...). Baina horiek guztiak, iturriaren jatorria gorabehera, norabide bererantz bultzatzen dute: gure egunerokotasunean mehatxaturik sentitzearen alderantz. Eta horrek dakar, ondorio zuzen gisa, jendarteak gobernutara eta bestelako botere publikoetara jotzen duela babes bila.

Bigarrenik, azken berrehun urteetan, Ilustrazioz geroztik, Europako gizarte-eredua, Giza Eskubideetan oinarria jarri zuena, eta demokraziari lehentasuna eman ziona, esandako arriku-gizartearen poderioz-jihadismoaren azkeneko mehatxua lagun-, galbiderantz doa. Horren sintomak ugari dira. Hala nola, barne-ministerioen protagonismo gero eta nabarmenagoa, gero eta presentagoa. Dena da polizia. Dena konpontzen omen da polizia gehiagorekin. Parisko atentatuak eta gero polizia-unitate berezi berriak sortzea berehalaxe erabaki dute. Polizien operazioek betetzen

dituzte komunikabideen eguneroko zeregina, egunkarietako izenburuak, irratietako solasaldien mamia, zinea... Nork esango zukeen duela 20 urte-edo kontu penalek denbora aurrera egin ahala, gizarte-komunikazioari hein handi batean bizkarrezurra emango lioketela?

Sakoneko aldaketa, aipatutakoaren azaleko arrastoen azpitik, zuzenbidean eta gizarte-kontrolaren eremuan islatzen ari da. Giza eskubideak, lehen, defentsa-eskubideak ziren, nolabait askatasun-esparruak Estatuaren botere aurrean defendatu beharrekoak. Erljio-askatasuna, irizti-askatasuna, ideologia-askatasuna, prentsa-askatasuna, etabar, jatorrizko zentzuan, Estatuaren esku-hartzea eragoztean zetzaten, hiritarrok geure autonomia aske eta libre garatzekotan. Orain, ordea, kontrola, gure esparru intimoetako kontrola baimentzeko prest omen gaude, Estatuak bermatzen bagaitu horren truke arriku gabe biziko gara. Estatuarekiko mesfidantza konfiantza bilakatu da: areago, Estatuaren esku-hartzearekiko mesfidantzatik Estatuari esku hartzeko eskakizun sutsura pasatu gara. Gure eskubideei uko egiteko prest gaude segurtasuna hitzmatearen truke.

Hirugarrenik, salbuespen-egoera aipatu bilakaeraren azkeneko kapitulu bat -ez nolanhikoa- besterik ez da. Frantzia, jakina denez, salbuespen-egoera aldarrikatu dute eta horrekin batera hainbat eskubide eta funtsezko berme murriztu dituzte: hala nola, atxiloketa, komunikazio-kontrola eta etxe-miaketak «erazago» ahalbidetzea, alegia, poliziek askatasun handiagok hori egin ahal izatea, epaile-kontrola ahulduz. Salbuespen-egoerak botere exekutiboari-gobernuari-are ahalmen gehiago

Estatuarekiko mesfidantza konfiantza bilakatu da: areago, Estatuaren esku-hartzearekiko mesfidantzatik Estatuari esku hartzeko eskakizun sutsura pasatu gara. Gure eskubideei uko egiteko prest gaude segurtasuna hitzmatearen truke

ematen dio eta bereziki polizien eguneroko jarduera-gaitasunari, epaile-boterearen kaltetan. Hiru botereen banaketa, teoria klasikoetik, hortaz, botere legegilea gobernuak zanpatu ostean, benetako botere banaketa epaile eta exekutiboaren artekoa bilakatu da. Salbuespeneko egoerak borroka horretan zuzen-zuzenean gobernuaren alde eragiten du. Beste hitzetan: Estatu demokratikoen botere eta kontrabotereen orekari erasotzen zaio eta polizia-Estatuaren eruduntza beste urratsa, beste bulkada ematen da. Frantzia salbuespen-egoeraren aldarrikatze hori, gainera, Konstituziora eraman nahi dute, horren ondorioz ikaragarriko polemika sortu delarik.

Espainiako Estatuan, ordea, salbuespen-egoera edo alarma-egoera kolektiboa ez ezik, funtsezko-eskubideen etete «indibiduala» 1978ko Konstituzioan jada txertatu zen (55.2 artikulua). Espainia izan zen, terrorismo kasuetan funtsezko eskubideak etete kolektiboa indibiduala Konstituziora sartu zuen lehenengoa. Harrez geroztik (denok dakigu hori bereziki ondo Euskal Herrian) funtsezko eskubideak murrizteko logika hedatuz eta hedatuz joan da. Etete indibiduala omen zena, *de facto*, egitan, kolektibo bilakatu da. Areago: ETaren aurka borrokatzeko tresna salbuespeneko gisa sartu zena, bestelako delitu-esparruetara ere zabaldu egin da, demokrazia, barne-barnetik, ahulduz eta hainbat esparrutan edukiz inosten. Pentsa dezagun, polizien komunizazioa, tortura, polizia-txostenei eman zaien perizial-izaera frogatuta, etabar. Salbuespeneko zena, azken buruan, normal bilakatu da eta gu guztion askatasun-esparruak murriztu egin dira.

Laugarrenik, ez dezagun iparrak galdu. Ez dezagun ahaztu iragana. Segurtasuna bada dudu barik zaindu beharreko balioa eta denok dugu horretarako eskubide giza legezkoa. Baina ez da bidezidorrrik, ez formula magikorik. Segurtasuna ez da lortuko beste eskubideak desagerraraziz. Ez da lortuko salbuespeneko egoeren bitartez. Hain erraza balitz!

Normaltasuna-ren barruan segurtasuna lortu behar eta ahal da, beti ere demokraziaren borroka eta borroka polizial hutsa desberdintzen ahalgintzen bagara. Izan ere, normaltasunari uko egitea giza-eskubideen ereduari uko egitea baita, eta horrek historikoki abusu itzelak denon kalterako besterik ez ditu ekarri. Hori al da nahi duguna?

Deskubrimendua

Komunitate txikia gara. Gure artean euskaldun nor den denok dakigu. Kide bat batzen zaigunean azkar zabaltzen da berria. Sorpresa gutxi hartzen ditugu. Katalanarekin, berriz, ezuste galantak hartu izan ditut. Orain gutxi, esaterako, Valladoliden jaiotako



JIRA
Angel Erro

Jorge Fernández Díaz ministro hagitx katolikoa te-
lebigistako eztabaida batean katalan arinean parte hartzen ikusi ditut, edo Antena3eko Susana Griso kazetaria Ada Colaturen zuzeneko adierazpen ba-
tzen aldibereko itzulpenak egiten. Euskaraz zailagoa da horrelakorik.

Aurrekoan, dena den, Gemma Zabaleta, PSE-EE baskistaren aurpegi ezagunetako, ikusi dugu Berria TBn lehenengoz euskaraz elkarrizketaturik. Komunitate txikia gara eta kide bat batzen zaigunean biziki poztzen gara. Tantaka betetzen da ontzia, euskaldunoi maiztua bar-katzen bazait. Komunitate txikia gara eta bertara sartzeak badu zerbait iniziatikotik. Zabaletak azaltzen du -eta gogora datorrik niri gauza bera gertatu zitzaidanean- euskara ikastea deskubrimendu ikaragarria izan dela, Euskal Herriko bi kulturak elkarki bizkarra emanez bizi direla. Hori hain da hala, euskaldunoi bakarrrik jakinarazten baitzaigu. Erdaldunek euskara ikasi behar dute lehenago horren susmo txikiena izaten hasteko.

Kuba

Siriako errefuxiatuekin alderatzerik ez dagoen arren, Kubatik ateratzen den jende oldeak ere merezi du aipamenik. Bide zuzenetik ezin jo eta Erdiko Amerikatik barrera urratu nahi izaten dute AEBetarako bidea; odisea latza da, bizimodu eroso eta askeagoaren itzaropenean diseinatua, eta bide batez esanda, kubatarrei erresistentzia besteei baino errazago lortzea ahalbidetzen dien legea bertan behera utziko duten beldurrak akulatua.



BIRA
Garbine Ubeda

Askotxoren bide-orriak Ekuadorrerako hegaldia izan du lehen etapa, han ez baitzaie bisi lortzeko eragozpenik jartzen. Kolonbia eta Panama igaroko zituzten gero, eta handik Costa Ricara, pasurako baime-na lortuta, gorantz jotzeko... Ezin, ordea, ez Nikaragutatik, ez Guatemalatik, ez eta Belizetik ere, burujabetza ziurtatu beharra argudiatuta, mugak itxi dizkietelako. Gainera, Costa Ricari hortzak erakusteko modua ere badelako, AEBen migrazio politika babestea eta apropos zipoka aritzea leporatzen baitote inguruko estatuak.

Raul Castrok gogoan izan zituen urte amaierako hitzaldira. Migratzeko eskubidea aldarrikatu zuen haien artean, eta bidean giza legez har ditzatela eskatu. Ez «itzuli etxera», ez «besoak zabalik hartuko zaituztegu», ez antzeko hitz gozorik. Ondoa halako erkiderik nahi ez duen seinale. Milaka izanda ere.